

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Durango Udala**

Akats zuzenketa, 2022. ekitaldiko ordenantza fiskaletako aldaketaren behin betiko onespenean.

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 232 2021eko abenduaren 2an (osteguna) argitaratu zen, 2022ko ordenantza fiskalen aldaketaren behin betiko onarpenaren iragarkian.

Akats bat antzeman denez, zuzendu egiten da, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

**TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAI NEKO
ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZAREN
3. ATALEAN**

VI. HOBARIAK

Ordenantzaren 7.f) artikulua aldatzea, eta honela uztea:

— *Honela dio:*

- «f) %100eko hobaria izango dute hogeita bost urteko antzintasuna duten ibilgailuek, betiere, fabrikazio-urtetik zenbatuta edo, hau ezezaguna balitz, lehenengo matrikulaziotik kontatuta, edo, bestela, aipatutako ibilgailu mota edo antzekoa fabrikatzen utzi zeneko urtea kontuan hartuta.»

— *Hauxe esan behar du:*

- f) Halaber, tributu-kuotaren %80ko hoba-ria izango dute gutxienez 30 urteko antzintasuna duten ibilgailuek, fabrikazio-datatik zenbatzen hasita, edo, fabrikazio-data ezagutzen ez bada, lehen matrikula-zioa hartuko da kontuan, edo, bestela, dagokion ibilgailu-mota edo aldaera fabrikatzeari utzi zitzaion eguna hartuko da aintzat.

Hobari hori erregutua izango da, eta, beraz, subjektu pasiboek, hobaria eskuratu ahal izateko, haren aplikazioa eskatu beharko dute. Aurreko bi paragrafoetan aurreikusitakoari dagokionez, eskabidea-rekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Ibilgailu klasikoaren aseguruia.
- Ibilgailuen azterketa teknikoa.
- Elkarte-ziurtagiria, Eusko Jaurlaritzako Elkarleen Erregistro Orokorrean behar bezala erregistratua, ibilgailu klasiko delako egiaztatzen duena.

Hori guztia Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 16. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera.

Durango, 2022ko urtarrilaren 17an.— Alkatea, Ima Garrastatxu Urbaneja